

-ZALDIBAR GOGORATUZ-

ONDO BIZI
ETA BIZITZEN UZTEKO

U30 ALDAKETALDIA



PLANETA **HEMEN** HASTEN DELAKO

Egun on, eskerrik asko etortzeagatik:

U30 Aldaketaldiaren berri emateko deitu dizuegu. U30 Aldaketaldia Larreko Mahaiak (1) sustatutako ekimena da eta honako hau du helburu: urtarilaren 30aren bueltan, ahal den herri, auzo, ikastetxe eta lan-zentro guztietan klima-, bioaniztasun- eta, oro har, ingurumen-larrialdia salatzeke ekintzak antolatzea, betiere ikuspegi lokaletik.

Agintari politikoek, orain pandemiaren aitzakian, eredu ekonomiko eta sozial jasanezinean sakondu eta larrialdi-egoera areagotzen jarraitzen duten honetan, beharrezkoa da norabide-aldaketa sakona exijitu eta trantsizio ekologiko eta sozialki justu baten alde urratsak emango dituen jendartea aktibatu eta saretzea. Argi dugu bizitzaren aldeko norabide-aldaketa hori ez dela gauzatuko horren alde egiten duen euskal gizarte aktibo eta saretua ez badugu.

Hori dela eta, urtarilaren 30ean, edota aurreko zein ondorengo egunetan, larrialdi ekologikoari lotutako salaketa- eta aldarrikapen-ekintzak egitea proposatu dugu: hitzaldiak, elkarretaratzeak, bizikleta-martxak, kostaldean edo ibaietan plastiko-bilketak, zuhaitzak landatzea, proiektu erraldoiren batek mehatxatutako natur guneetan ibilaldiak... eta bururatzen zaizuen guztia.

Gainera, otsailaren 6an Zaldibarko zabortegia bertan behera erori zeneko urteurrena izango da. U30 Aldaketaldia ekimenaren bidez hori gizarteratzen lagundu nahi genuke, Zaldibarkoan argi geratu baita Euskal Herrian, ingurumen alorrean, gauzak ez direla ondo egin eta ez direla ondo egiten ari.

“Globalean pentsatu eta lokalean ekin” leloak adierazi bezala, ezinbestekoa iruditzen zaigu krisi globala hemen bistaratzea, planetari gertatzen ari zaiona gurean hasten dela argi adieraztea; gure garraio-, hondakin-, bioaniztasun-, lurralde antolaketa-edota ibaien saneamendu-politiketan. Beraz, lokala eta globala uztartzeko ekimena izatea nahi dugu, bide batez norberak bere taldearekin ez ezik beste batzuekin elkarlanean, ingurumen-larrialdi honi eraginkortasun handiagoz aurre egiteko abiapuntu.

Dagoeneko Gipuzkoako hogeit hamar herri baino gehiagotan ekintzak konprometituta daude ekimenaren barruan (2), tartean U30ean bertan Donostian egingo den manifestazio bateratua, 17:00etan Gladys Enetik atera eta Bulebarrean bukatuko duena.

Baina bi kontu nabarmendu behar dira. Batetik, oraindik badela ekimenarekin bat egiteko aukera (Larreko Mahaiarekin kontaktatzeko: larrekomahaia@gmail.com). Izan ere, badakigu hainbat herritan ekintzak prestatzen ari direla. Bestetik, ekimenak beste herrialdeetara ere salto egin duela; beraz, beste herrialdeetan ere U30 Aldaketaldia egingo dute.

Aldaketa behar dugu. ALDA SISTEMA!

Bat egin U30ean has daitekeen ALDAKETALDIArekin.

Argibide gehiago eskatu edo elkarrizketaren bat egin nahi baduzue, jo honako telefono hauetara: 669157866 (Lorea), 682463478 (Edurne) eta 656742051 (Juanmi).





1. Larreko Mahaia 2019ko udazkenean sortu zen. Larrialdi ekologikoarekin kezkatuta gauden Gipuzkoako hainbat eragile sozial eta sindikalen elkargunea da. Gaur egun, honako hauek elkartzen gara Larreko Mahaian: ELA, LAB, CCOO, ESK, STEILAS, EHNE, Ikasle Sindikatua, Greenpeace, Eguzki, Errausketaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Ernai, Fridays For Future eta Extinction Rebellion. Honako talde hauek ere bat egin dute U30 Aldaketaldia ekimenarekin: Haritzalde, Satorralaia, Uliako Lore Baratzak, Aire Garbia, Ipar Haizea, Landarlan, Ekologistak Martxan, AHTrik EZ, Grupo Oarso Taldea, Urola Bizirik, Mutriku Natur Taldea, Antikapitalistak, BizilagunEKIN, Ondarroa 12 Mila, Naturkon, Arkamurka eta beste batzuk.

2. Hona hemen momentuz dauden konpromisoak:

HERRIA	EKINTZA	ANTOLATZAILEA
Donostia	U30ean, 17:00etan, ahal den manifestazio batu, animatu eta koloretsuena: Gladys Enea-Bilbo plaza-Getaria kalea-Bulebar	Denon artean
Donostia	Zuhaitz-landaketak: 24an, Loiolako	Haritzalde

	Erriberetan; Otsailaren 7an, Txominen	
Donostia	29an Metroa salatzeko ekintza Kontxako hondartzan (12etan, Erlojuetan)	Satorralaia
Donostia	23an erraustegia salatzeko ekintza	GuraSOS
Donostia	Baratza komunitarioen egunean, osatu amarauna bat ingurumenaren aldeko errebindikazioekin	Uliako Lore Baratzak
Donostia	U30ean eguerdian, elkarretaratzea Udaletxe aurrean hondakin-politika salatzeko	Erraustegiaren Aurkako Mugimendua
Lasarte-Oria	U11n “Zaldibar Zona Cero” liburuaren aurkezpena + U30ean elkarretaratzea	Aire Garbia

Andoain	U30ean, saneamendu gabezien eta aire- kutsaduraren inguruko salaketak	Ipar Haizea, Eguzki...
Hernani	U30ean, 12etan, elkarretaratzea Plaza Berrin	
Altzo	Otsailaren 6an, zuhaitz-landaketa	Haritzalde
Goierrri	23an, ibilaldia Amondarain errekan barrena; 26an, 5Gren inguruko hitzaldia	Landarlan
Orereta	21ean, “Ezezagunerako bidaia” liburuaren aurkezpena; U30ean, mendi- martxa AHTren aurka (13:00etan, Oreretako plazan kontzentra, seguruena lau gairen inguruan: AHT, Amazon, Altzate eta erraustegia	Eguzki, EM, GOT, AHTrik Ez...

Oiartzun	Otsailaren 4an, “Zaldibar Zona Cero” liburuaren aurkezpena; beharbada, beste hitzaldi bat, eta Amazonen gaia nola landu aztertzen ari dira	Eguzki, EM, GOT, AHTrik Ez...
Urola bailara	Ibaiara joaten den zaborrari buruzko erakusketa Azpeitian; Azpeitian eta Azkoitian ibilaldia ibaian barrena eta zabor bilketak; halaber, harremanetan daude Zestoa, Legazpi eta Zumarragan ere zerbait egiteko	Urola Bizirik
Urretxu-Zumarraga	23an, “Zalbiar Zona Cero” liburuaren aurkezpena; U30ean elkarretaratzea (konfirmatzeke)	Hainbat talde
Tolosa	Irratsaioa + liburu- aurkezpena	

Orio	U30ean mendi-martxa erraustegia eta zaborren gaia jorratzeko	Erraustegiaren Aurkako Taldea
Villabona-Zizurkil-Asteasu		
Usurbil	Bertako kutsadura-fokuei buruzko hitzaldia	
Mutriku		Mutriku Natur Taldea
	U28an hitzaldiak egingo dira, bai unibertsitatean, bai ikastetxeetan	Friday For Future, Ernai eta Ikama
	Proposamena: "Camino a la extincion" liburuaren inguruko hitzaldia online	Extinction Rebellion
	U26an, Ingurumen Hezkuntzaren Nazioarteko Egunean, eskoletan Aldaketaldiarekin bat egiteko deialdia egin du	STEEILAS

	Adierazpen bat lantokietan zabaldu eta deialdiekin bat egin	ELA
	Adierazpen bat lantokietan zabaldu eta deialdiekin bat egin	LAB

Hauek dira orain arte bildu ditugun konpromisoak, baina gehiago izango dira, noski. Izan ere, badakigu Oñati, Mutruku, Irun, Zarautz eta beste hainbat herritan ere lanean ari direla.

Halaber, U30 Aldaketaldiak Gipuzkoatik kanpo izaten den harrerari dagokionez, badakigu ekintzak honako herri/eskualde hauetan behintzat egingo dituztela: Gasteiz, Bilbo, Arratia, Galdakao, Uribe-Kosta, Mungia, Morga, Ondarroa...